



PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

Laneko heriotzen aurrean pausu bat aurrera emateko ordua da, arduradunak seinalatzea eta ordain dezatela exigitzen dugu

Gaur, otsailak 25, langile baten heriotzaz hitz egin behar dugu berriz. Istripua atzo jazo zen arratsaldeko 17:30ak aldera Murgako Zorroza gestion de residuos enpresan. Behargina 4 metroko altueratik erazi zen lanean ari zen bitartean, Guruzetako ospitalera eman zuten, baina zaurien ondorioz gaur hil da.

LAB sindikatutik, lehenik eta behin, langilearen senitarteko, lagun eta lankideei gure elkartasuna eta babesa adierazi nahi diegu.

Salatu beharra dugu, 2020. urtean, istripu hilgarriak ikaragarri handitzen ari direla, lan egiteagatik 14 langile hil dira Euskal Herrian, hauetatik 4 Araban. Honetaz gain, ezin ahaztu Zaldibarren bi langilek 19 egunez desagertuta jarraitzen dutela.

Langile honen heriotzaren arrazoiak ikertzea eskatzen dugu, baita ere lan baldintzak, lan erritmoak eta abar.

Langileon lan baldintzak gero eta prekariagoak dira, patronalak bere irabaziak langileen osasun eta bizitzaren aurretik jartzen dituelako. Administrazioak, Lan Ikuskaritzak eta Fiskaltzak ezin dute ezikusiarrena egiten jarraitu. Pausu bat aurrera emateko ordua da, arduradunak seinalatzea eta ordain dezatela exigitzen dugu. Langabeziaren jaitsieraz hitz egiten duen bitartean, prekaritatea erabiliz langileak hiltzen jarraitzen dute.

Lan istripuak ez dira kasualitatez ematen. Erantzuleak dituzte, eta horrela izanik, instituzioei eta gainontzeko eragilei lanean ematen ari diren istripuak ekiditeko beharrezkoak diren politika errealak martxan jar dizaten eskatzen diegu.

LABen lanean eta borrokan jarraituko dugu langileon eskubide, segurtasun eta osasunaren alde. Horregatik, dei egiten diogu langile klaseari azken istripua salatzeko deituko diren mobilizazioetan parte hartzera.

Gasteizen, 2020ko otsailaren 25ean